



Zahartzaroaren maparen bila

Arantxa Urretabizkaia

Saio eta Testigantza, 281

978-84-9172-450-6

2025 - 112 or. - 15 x 21,5 cm

16,00 €

Zahartzaroaz doa liburu hau, batez ere muga guztiak kontuan izanda ere maila handi batean geure buruaren jabe izan nahi eta ahal dugun zaharroi buruz, ez buruak edo gorputz osoak kale egin ondorengo zaharrei buruz.

Erdi Aroko mapetan, mapagilearentzat ezezagunak ziren lurraldeak seinalatzeko, *hic sunt dracones* jartzen zuten, hemen herensugeak daude. *Terra ignota* edo *terra incognita* ere esaten zitzaion.

Bada, belaunaldi oso bat abiatu da herensugez jositako lurralde ezezagun horietan, maparik gabe, baina iparorratz bat eskuan. Autonomia da iparreko izarra, zaharrok pertsona orok dituen eskubideen jabe garela.



Arantxa Urretabizkaia

1947an jaio zen. Kazetari lanbidez, prentsa idatzian, irratian nahiz telebistan egiten du lan. Idazle gisa poesia idazten hasi zen (*Maitasunaren magalean* poema liburuarekin lortu zuen Kritika saria 1982an) eta eleberriekin jarraitu. Narratibaren alorrean, *Zergatik*, *Panpox* (Hordago, 1979), *Koaderno gorria* (Erein, 1998), *3 Mariak* (Erein, 2010; Kritika Saria, 2010), *Zuri-beltzeko argazkiak* (Pamiela, 2014), *Bidean ikasia* (Pamiela, 2016; Euskadi Literatura Saria, 2017) eta *Azken etxea* (Pamiela, 2022; Euskadi Literatura Saria, 2023) dira lanik ezagunenak, horiek guztiak gaztelaniaz eta beste hainbat hizkuntzatan argitaratuak.

